

■ ERRUGBIA - JUBENILAK-

Hernani estatuko txapeldun, Santboiana talde katalanari 23-20 irabazita

■ Infantilak Gipuzkoako txapeldun gelditu dira eta datorren astean Euskal Herriko finala jokatuko dute Bilbon.



Hau da Hernanira aurten Errugbi titulorik garrantzitsuenak ekarri dituen taldea.

HERNANIKO errugbi Elkar-terko gazteek asteburu borobila burutu dute. Jubenilak Madrilen ziren Euskal Herriko txapeldun geratu ondoren, estatuko txapela lortzeko asmotan, eta baita lortu ere. Larunbatean finalerdietan Valentziako Helios Cau hartu zuen mendean 8-3. Atzo goizean finala jokatu zuten kataluniako Santboiana-ren aurka

eta 23-20 irabazi zuten. Honenbestez, Hernanik bere kategoriko titulorik garrantzitsuenak lortu du, jubeniletan areririk ez duela erakutsita.

INFANTILAK ERE BAI

Infantilek ere egin dute hazaina: Gipuzkoako txapelketa irabazi dute. Talde honek denboraldi guztian ez du partidurik galdu. Asteburu honetan Gi-

puzkoako txapelketaren azken fasea jokatu zuen, eta bi partidurik irabazi egin ditu. Atletico San Sebastiani 60-0 eta Ordiziari 50-20. Gipuzkoako lortu ondoren, datorren asteburuan Euskal Herriko tituloa jokatu du. Bilbon. Kontrarioa talde bizkaitar bat izango du, baina, zein ez dago zehaztua. Ea infantilek beste txapel bat ekartzen duten herrira. □

Cabarcenora arrantzara joateko eskurtsioa antolatu du Txantxangorrik

■ 10-15 urte bitarteko neska-mutikoentzat da ■ Eguna: ekainaren 9a.

URTERO bezala, Txantxangorri elkarteak umeei Cabarcenoko parkea ezagutu eta han arrantzan ibiltzeko aukera emango die.

PLAN EDERRA

Ikusi eta ikasteko Txantxango-

rrik egun osoko plana moldatu du: goizeko 07:30etan aterata eta bidean parkeari eta arrantzari buruzko bideoak ikusi. Iritsi eta parkeko lakuan arrantza lehiaketa. Bazkalondoren, parkea ikusi eta 17:30ak aldera Hernanira abiatu bueltan.

Txantxangorrik, umeak parkeari buruzko argazki, pintura edo idazlanak egitera animatu ditu. Gero ekainaren 17tik 22ra erakusketa jarriko du.

Izena ematea 1.500 Pta da eta 56entzat dago lekua. Bakotzak bere jana eraman. □

GURASO ARTEKO TOPAKETAK

Familia, heziketa eta prebentzioaz eztabaida, bihar

■ Ongintzako Prebentzio sailak gurasoen arteko topaketak antolatu ditu familia, heziketa eta prebentzioa nola lotu eztabaidatzeko. Joan den asteartean izan zen lehen txanda eta bihar bigarrena. Ordua: Inmaculadan eta Urumean 14:45-16:15. Elizatxon, 19:30- 21:00. Edozein guraso azaldu liteke jardunaldietara, ikastetxeak izan ala ez

MENDIRIZ MENDI

Arroila jeistera joateko bilera

■ Mendiriz Mendik arroila jeistera joateko plana antolatu du datorren astebururako (maiatzak 26, 27). Irteera nora egin eta nola planteatu erabakitzeke dijoazenekin bilera egingo da: ostegunean (24), arratsaldeko 20:00etan.

Pala txapelketa, Floridan

■ Mendekoste jaiak direla-eta, Floridan binakako pala txapelketa jokatuko dute, *mazizarekin*. Denera, 10 bikote apuntatu dira: Juanma-Migel, Fredi-Adolfo, Iñaki-Karlos, Ibon-Bersaitz, Txepe-Emilio, Jose Mari-Iñigo, Ibon-Iñigo, Nani-Jokar eta beste bi bikote; baina, laguna lortzeko bidean daudenak: Jabitxu-xx eta Unai-xx.

Hezkuntzaz gogoeta

■ Hezkuntza sistema propioari buruzko gogoeta egiten hasteko bilera dago maiatzak 23, asteazkenean, Biterin. Eztabaida herri mailan dago planteatua, herrian bertan egin litekeenari begira. Etzi, 19:30etan. □

'Osasungintzan euskeraz!' lemapean EHEren ekimenak

■ Osakidetzari keja orriak helarazi nahi dizkiote.

EUSKAL Herrian Euskarazek martxoan, hainbat mobilizazio burutu zituen Hernaniko anbulatorioko euskararen egoera salatzen. Hari beretik, euskaldunon eskubideak bete eta zerbitzua euskaraz izateko ekimen berri bat martxan jarri nahi du EHEk.

KEJA ORRIAK

Orain hasi eta Sanjoan arte, anbulatorioan euskararen egoera salatzen, ahalik eta keja gehien bildu nahi dituzte, hauen bidez Osakidetzari zerbitzu eta

langileko euskaldunak eskatzen. Honetarako hainbat eguntan, herrian barrena keja orriak banatuko dituzte, herritarrek euren kejak azal ditzaten.

LEKUAK

Asteazkenean Meaben egongo dira 16:00etatik 17:00etara. Ostegunean Ferian 16:00etatik 18:00etara. Ostiralean Elizatxon 16:00etatik 17:00etara eta Larunbatean Plaza Berrian eguerdiko 13:00etan, nahiz eta azken hau oraindik zehazteko dagoen. □

 <h2>PEÑA OTAÑO ELKARTEA</h2> <p>Mus Txapelketako laguntzaile guztiei eskerrak</p>		
Sariak jarritakoak: Otsua Enea Sagardotegia (Txapelak) Euskadiko Kutxa Manuel Capdequi (Bazkidea) El Diario Vasco Juper Bat, S.A. Gorostegi Anaiak (Schweps)	Cafes Aitona Ameztoi Txakoliña Barkaiztegi Sagardoak Beñaran Kontserba eta likoreak Cinco-Enea ardoak Diregui S.Coop. Gorostegi Anaiak Hator Asesoría Ibañez Janaridenda Iñaki Iparragirre Aristi Irigoi Sagardoak	Maset Del Lleo Petritegi C.B. Portalondo estankoa Pulet Komertziala, S.L. San Miguel Industrial Distribuciones Villaverde Viguisa-Vinicola Guipuzcona Zelaia Gipuzkoa Donostia Kutxa Goiko Ardoak 'El Coto'
Produktu edo opariak jarritakoak: Aburuza Sagardoak		Guztiei Eskerrik asko.

CATALANA OCCIDENTE 
Bautista Biurrarena Etxegoien
Kardaberaz 40 -Behea Tel. 943 33 24 40 Faxa 943 556602 Mobila 610 29 27 01 20120 HERNANI


LAN AHOLKULARITZA FISKALA KONTABLEA

Atzieta 51 Behea - 20.120 HERNANI Tel: 943 55 02 54- Faxa: 943 33 58 01

452 ume aurten Udaleku Irekietan

■ Joan den astean bukatu zen izena emateko epea



Aurten ere hainbat ume izango da San Fermin egunean entzierrorako prest.

IA bostehun umek eman dute izena aurtengo Uztaileko Udaleku Irekietarako. Hernanin ikasten duten haurrek, bakoitzak bere ikastetxean eman behar zuen izena, eta honako hauek izan dira ikastetxe bakoitzean apuntatutakoak: Urumea Ikastolatik H.Htik (Haur Hezkuntza) 45 umek eman dute izena eta L.H.tik (Lehen Hezkuntza) 55. Elizatxo ikastolan H.H.tik 52 eta

L.H. 37. Inmaculadan H.Htik 6 eta L.H.tik 16. Azkenik, Langiletik H.H.tik 97 haur apuntatu dira eta L.H.tik 111.

GUZTIRA 452

Ikasketak Hernanitik kanpo egiten dituzten 33 haurrek eman dute izena Euskera Zerbitzuan. Guztira 452 haur izango dira. Hemendik aurrera norbaitek izena emango balu, itxaron zerrendan sartuko litza-

teke. Bajarik balego, itxaron zerrenda horretako haurrak sartuko lirakeke.

BEGIRALEAK

Begiraleentzat ere izena emateko epea bukatu zen, baina oraindik ez da zehaztu zenbat beharko diren. Haur kopurua jakinda, orain aztertuko da zenbateko taldeak egingo diren eta zenbat begirale beharko diren. □

■ MUS TXAPELKETAK

Sailkapen faseak eta final zortzirenak

XALAPARTA ELKARTEA
Maiatzak 22, asteartea:
Oiaga-Oiaga / Felix-Nemesio Martin-Iñaki / Zulaika-Uria Julio -Alcelay / Zabala-Zabala Txema-Goio / (aurreko partidako irabazleak)
Maiatzak 23, asteazkena:
Juan-Satur / Ramon-Peli J.J.Zelaieta-Joakin / Martin-Goñi Joxan-Bernar / Apolinar-Ibon Erdozia-Goikoetxea/Gorrotxa-Jesus Zozketaz libratuak:
Doval-Etxarri

Mauri-Txanpi / Xaxi-Carlos Gabi-Ramo / Manu-Josetxo Txarli-Iñaki / Pako-Gabriel Javi-Rafa / Sesma-Kaki
Maiatzak 23, asteazkena
Iñigo-Jokin / Loinaz-Rincon Zelarain-Felipe / P.Valle-Alvaro Pablo-Josetxo / Juan Bautista-Jokin Osanbela-Zubillaga / Teo-XX
Maiatzak 24, asteazkena
Helio-Joseba / Mikel-Olazar Arnaiz-Fernando / Martiarena-Julio Aitor-Ibon / Erdozia-Antonio Satur-Xabier / Aita-Jose Luis

Maiatzak 21, astelehena
Aitor-Alvaro / Kolonbo-Txema Iñaki-Alex / Fernando-Bixente Javier-Pello / Koldo-Txuria Montxi-Juan Luis / Joseba-Inaxio
Maiatzak 22, asteartea:
Goñi-Bilbao / Goñi-Antonio Txema-Manolo / Mati-Manu Iñaki-Julian / Pako-Pantxo Yon-Greñas / Aitor-Peli

ETXEBERRI ELKARTEAN
Maiatzak 23, asteazkena:
Maxi-Eme / Arrostitio-Telleria Xefe-Bilbao / Holgado-Iñigo Cordero-Manolo / Alejandro-Gorka Abel-Cipri / Iñaki-Jabitu

ARALAR TABERNA
Final-zortzirenak:

👉 JASOTA BEZALA

KIROLDEGIA ITXITA

Kiroldegiko frontoian urte osoan zehar entrenatu eta lehiatzen diren pilotariak ohar bat aurkitu zuten joan den apirilaren 30ean atean. Ohar horretan esaten zen kiroldegia itxita egongo zela, mugarik gabe, garbitasun zerbitzuko greba zela medio.

Osasun eta higie-ne-arrazoia direla-eta hartu den erabakia zailentzen jar zeko asmorik gabe, uste dugu pilota sailarekin aurrez harremanetan jartzea ezinbestekoa zela, jakinda, zer nolako arazoak ditugun instalazio ezagatik. Elkarrekin azter genezakeen arazoa eta soluziobiderik egokiena hautatu (agian Buruntzaldeko beste kiroldegiekin harremanetan jar gitezkeen eta haietan dauden ordu libreak hartzen saiatu...).

Pilota sailak une honetan urteko lehiaketarik garrantzitsuenak du aurrean, herriarteko txapelketa. Tresnarekin jokatzen duten pilotariak hasiak dira, jadanik. Lehenengo partida joan den igandean jokatu zuten Olaberrian eta bigarrena Hernanin jokatu behar dute datorren asteburuan. Kiroldegiko bulegoko norbaitek esango al digu non jokatu behar ditugun partida hauek? Eskuzko pilotariak, berriz, gogor ari dira entrenatzen iaz lortutako txapelari eutsi nahian. Zer egingo dugu frontoia itxita dagoen bitartean? Non egingo ditugu entrenamenduak? Gogorazten diet kiroldegiko bulegokoei Hernaniren izena defenditzen dutela pilotari hauek.

Joan den asteburuan hasten

zen *lau terdiko* txapelketa. 14 hernaniarrek hartu behar dute parte txapelketa honetan eta partida guztiak Hernanin jokatzeak dira. Bulegoa ederki arduratzen da aurrez partiden egutegian eskatzeko, baina, ez zen hain aurrez ibili, larunbat horretan ez zela jokaterik izango abisatzeko orduan. Ostiralean jaso genuen erantzuna eta guk behin eta berriz eskatuta.

Idatzi honen bidez kiroldegiko arduradunei eskatzen diegu konpon ditzatela herri honetan pilotak dituen arazoak. Urtean zehar, udal instalazioak erabiltzen dituzten gainerako kirol klubak baino baldintza kaskarragoetan ari gara lanean, eta kiroldegia ixte hau izan da errematea.

CDH-ko pilota saila.

Exitoa Txalaparta Festan

■ Larunbat gauean, afalondoko saioak jarri zion ginda hamabosgarren edizioari.



Txalaparta lanak Tilosetan, larunbateko merkatu txikian.

INGURUTIK ez ezik kanpotik ere ekarri du jendea aurtengo Txalaparta Festak: Ingalaterratik, Murtziatik... Txalapartak bere hutsean eta beste instrumentuekin batera zenbat lezakeen ikusteko hiru egun izan dira. Ekitaldi nagusia larunbateko txalaparta erromeria izan zen: txalaparta saio librea,

150 lagunetik gora afaltzen Tilosetan, eta Euskal Herri osoko txalaparta taldeak gero, gau giro fresko, baina, ederrean. Beltranek-eta, garai bateko *ote jotzea* egin zuten txalapartarekin, otea bere otaskan jarrita. Orain, antolatzaileak, dagoeneko datorren urtera begira jarri dira. □

BERTSOLARITZA

Agirre, Zelaia eta Zerain, Txapelketa Nagusirako

■ Maiatzaren 27an saio berezia izango da Oiartzunen Gipuzkoatik Txapelketa Nagusira joango direnekin.

LASARTEN jokatu zen Gipuzkoako azken kanporaketa saioa eta hiru hernaniar sartu dira 12ko zerrendan: Agirre, Zelaia eta Zerain aurrerako. Estitxu Eizagirrek hirugarren egin zuen bere saioan, baina, sailkapena puntuka denez, ez da lehenengo 12etan sartu.

Hamabi horiek eta aurretik sailkatuta dauden beste zortzi bertsolariak saio berezia egingo dute Oiartzunen. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak antolakuntza

	SAILKAPENA	Puntuak
1.	Aitor Mendiluze	735,5
2.	Unai Agirre	726
3.	Amaia Agirre	713,5
4.	Iñaki Zelaia	711,5
5.	Aritz Zerain	703,5
6.	Aitor Sarrigi	700
7.	Joxe Munduate	700
8.	Nerea Elustondo	699,5
9.	Arkaitz Goikoetxea	694,5
10.	Bixente Gorostidi	693,5
11.	Ekaitz Goikoetxea	693
12.	Ainhua Agirrezaldegi	691

batzordeak Gipuzkoatik Euskal Herriko txapelketara joango diren guztiak bilduko ditu Oiartzungo saioan. □

■ PLATER TIRAKETA

Zerain onena Santa Barbaran

LUIS Mari Zerainek irabazi du Santa Barbaran jokatutako Plater tiraketa saioa. Bigarren Jose Manuel Loinaz izan zen. Lehenengo tiraldian berdin gelditu ziren 15na platerekin. Desnatean, Luis Mari plater bat gehiago bota zuen.

Luis Mari Zerain eta Jose Manuel Loinazek lehenengo mailan lehiatzen dute. Desnatean beste biek batera, Luis Garaiarrek tira zuen. Luis garaiarrek mailan lehiatzen du eta bera izan zen maila honetan irabazle. □

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40etan: M. Jesus Jauregi, grasa on eta txarrei buruz. 12:00etan: Herri Mugi III. Topagunearen balorazioa. 12:40etan: Luis Mari Zalduarekin, Ereñotzu inguruan ibiliko dira.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak: 943 550093
☎ Udaltzaingoa: 943 333288
☎ DYA: 943 464622
☎ Anbulatorioa: 943 557750
☎ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Gomez Nagusia 15 ☎ 943 554892
☎ Gaeuz: Ansa Andoain, Ondarreta ☎ 943 591302
☎ ASTEARTEA
☎ Egunez: Irigoyen Elkano 2 ☎ 943 552087

☎ Gaeuz: Arzallus Andoain, Plazaola 17 ☎ 943 591514

☎ ASTEAZKENA

☎ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
☎ Gaeuz: Diaz Andoain, Nagusia 19 ☎ 943 592057